

ASKATASUNAREN BIDEAN NAFAR MORALITATEA

Letona (2005.10.12)

Ohiko demokrasiaren definizioa herriaren gobernu da, eta geure kasuan euskal edo nafar demokrazia litzateke. Geu demokraziaz ari garenean geure herriaz, euskal demokraziaz ari gara, hain zuzen. Demokrazia kontzeptua geure herrira ekarriaz, euskal demokrazia izendatzea, jorratu behar dugun gairako, era oso praktikoa deritzogu. Halaber, herri bakoitzak bere ezaugarri eta helburuen arabera morala du. Morala ere herri bakoitzaren esparruan gauzatzen da.

Moral demokratikoa herrikide guztion betekizuna baldin bada ere, hezkuntzan, komunika bideetan..., hau da, kultur alor ezberdinetan gabiltzanak proiektio handiagoa edota eragin zuzenagoa dute. Hori horrela, aspaldi honetan, batzuen batzuk hezkuntzan gauzatzen den euskal curriculuma eskasa dela ohartu direnez, beste baten beharra ikusi izan dute. Ideia gogoz hartu izan da, eta lehen urratsak ematen ari direla dirudi.

Egia da, orain arte egin diren curriculumak, ezer gutxi zeukatela euskal curriculumaz. Espainiako Legeak uzten zizkien bideak ere ez dira bete izan. Jakin badakigu, behintzat, euskal curriculuma, Estatua berreskuratzen ez bada, ezinezkoa izango dela burutzea. Hori horrela izanik bi irtenbide ditugu: bata, Estatua berreskuratzeko behar den euskal curriculuma eratuz joan; edo bestea, Espainiako legeak uzten dizkigun aukeraren arabera, soilik, jokatu.

Bi bide horiek ikusita, pentsatzekoa da, biak hartu behar direla kontutan. Askotan esan izan da praktikoak izan behar dugula, eta horretan seguru aski denok egongo gara ados, nahiz eta praktikotasuna zer den definitzean ezberdintasunak sortu. Nolanahi ere, bi alderdiak ez badira kontutan hartzen geure euskal morala gerorantz ez dugu ikusiko. Espainiako legeak uzten dizkigun arabera, bakarrik, jokatuz gero, ez ginen gai izango, eurek ipinitako esparrua gainditzeko; beraz geure euskal curriculuma hobereeneko kasuan ez zen garatuko, eta gainontzeko kasuetan bere hil zoria desagertzea edota espainiar moralitatean urteia izango litzateke. Praktikotasuna, beraz, proiektio estrategiko orokor baten barne kokatuta egon behar du.

Moralaren unibertsaltasuna, orokortasuna, internazionalismoa eta antzeko hitz potoloak, herri bakoitzaren morala gaitzesteko eta inperialistena ezartzeko erabili ohi da. Aitzitik, herri bakoitzak tokien tokiko baloreak izatean, eta horien bidez herritasuna garatzen duten neurrian, bakarrik, unibertsalak bilakatzen dira. Saiatu eta bultzatu behar ditugu Herri bakoitzak bere baloreak izatea, gizateri osoarentzat oso garrantzitsua eta aberasgarria baita. Zeren herriak dituen premietatik eta beharretatik sortzen baititu balioak, eta horrela bakarrik bilaka daiteke demokratiko eta unibertsala. Beraz, guk beste gainontzeko herriak bezala balio hau, hori eta horiek eratzen ditugu. Eta hori, bakarrik, herri osoaren Herrikideen arteko solasaldia eta adostasunaren bidez lor daiteke.

Esan bezala, baloreen erabakia demokratikoa izan behar du. Horretarako, herriaren helburuak, nahiak eta interesak zehaztu behar dira. Premia horien arabera eta egoki erantzuten dien balioak izango ditugu, beraz. Halaber, herri osoaren eta herrikide guztien Ongia izango du helburutzat. Premia horiei erantzungo dien balioak ere sortu behar ditugu. Eztabaida arrazionala medio, helburu, interes eta balore ezberdinak daudenean ez bezala, tresna egokia izango da herri osoaren nahia eta asmoak burutzeko.

Geure herriak ia dena galdua du. Estatu inperialistek Nafarroako estatua suntsitu zuten. Ondorengo mendetan, artean garatutako sistema forala, eta Espainiako estatuak, 1936an, geure herrian sortarazitako gerraren ondorioz, hemen suertatu zen Estatutua ere. Hori gutxi eta, Gernikako estatutua azken iruzurra izan da, gestio administratibo huts batera. Hala ere, herria bizirik diraun, indarra dagoen eta duen seinale nabaria. Besten artean tradizioa, ohiturak, baloreak eta morala lekuko.

Askatasuna lortzea, hau da, geure Estatua berreskuratzea, gaur eguneko indar korrelazioak, deituriko euskal klase politikoak zelan erabiltzen duen ikusita, zaila ikusten da. Geure herriaren heriotza ere ez da berehalako zoritxarra izango, eta ditugun indarrak ondo erabiliz gero askatasuna eskuratzeaz baikor egon gaitzke. Historiak esaten digu, herriak jaiotzen diren bezala hil ere egin daitezkeela. Edozein kasutan, geure herriaren hiltzea zaila izango da tentuz jokatzuz gero. Herriak iraun dezan; indarra izan behar duela begi bistakoa da, hori baita herriaren osasuna neurtzeko termometroa. Bestalde, herriaren oinarrizko jarduera eta harremanetako ohiturak, baloreak eta morala euskarri izatea ezinbestekoa da herria osasuntsu egon dadin.

Indar soziala, indar politikoa barne, ikusezina eta zatiezina bada ere, moral inguruko indarrez soilik arituko gara. Hain zuzen, herri indarra gutxitzen den eran, herriak ohiturak eta morala bezalako euskarri atxikitze joera azaltzen du. Beharrezkotzat jotzen da horrelako kasuetan tradizioz jasotako euskarri izatea. Zeren, gure kasuan, gu subjektu kultural izan baino gehiago, objektu kulturalak baikara. Horrek zera adierazten du: guk sortzen dugun produkzio kulturala jasotzen duguna baino txikiagoa dela. Eta horrek behartzen gaitu tradizioa, morala eta horrelako euskarrietara jotzea. Orain arteko morala kontutan hartzekoa baldin bada ere, bizirauteko eta askatasuna lortzeko gaur eguneko baloreak eta horren arabera morala moldatzea eta garatzea ezinbestekoa dugu.

Tradizioa, ohiturak eta bere morala ez duten herriak ez dute herri bezala bizitzeko sostengurik, ez baitaki zelan jokatu, ez baitu erreferentziarik. Herrikideak jokabide oro bideratzerakoan, herri kodigorik ez izatea, herri horrentzat gabezia izugarria eta larria da. Hori gertatuz gero, galduta eta noraezean dabilen herria dela esan genezake, zein euren jokabideetan inperialistek nolahi eragiten eta muturra sartzen baitute.

Moralaren eta abarren garapena demokratikoa behar du izan, herriak egunerokotasunean sortzen duen morala garatu behar du. Hala eta guztiz, beti, inperialistek barnean daramagun esparru horretara ere jotzen dute, geure herriak bere izpiritu sakonean duen hori desegiteko

helburu dutelarik. Horrelakoetan, batzutan, eusteari ekiten diogu, bestetan erasotzeari eta beste halakoetan eurek ipinitako tranpan erortzen gara. Beraz, tentuz jokatu behar dugu, sistemaren bidez geuretzat kaltegarria izan daitekeen injerentzia egon ez dadin.

Herriek, gehienetan, botere morala da azken galtzen dutena. Hori gertatuz gero, herri horren bukaera emana dagoela esan daiteke. Ez da bakarrik garrantzitsua egin dugun aipuagatik; baita ere, euskal moral kolektibo demokratikoa askatasuna lortzeko ezinbestekoa delako. Egoera demokratiko horretan, bakarrik, gauzatu daiteke moralitatearen normalkuntza, eta entzuten ohituak gauden gainontzeko normalkuntzak. Herriak demokrazian bizi ahal izateko, gauzatu eta indartuko duen morala demokratikoa behar du izan. Borroka politikoaren xedea, ildo beretik jarraituz, demokrazia lortzea da.

Askok diote banako moralaren aldekoak direla, nolabait beste herrikideekin zerikusia ez balukete bezala. Jakin dezaten horiek ere, horrelako morala aurrera eramateak isolamendu oso handia eskatzen duela, eta hori gaurko gizartean ezinezkoa dela, baldin klausurako komentu edo isolatutako leku batera ez badira erretiraten ermitauen bizitza eramatea. Nolanahi ere, horien artean, aurrekoak ez bezala, gizartean bete betean bizi nahi dute. Eta asken aldian, batez ere, horrelako indibidualismo laiko moduko morala nagusitzen ari da, non Estatua jainkozko hartuz bere morala harreman horretara mugatzen duten. Horiek bere indibidualtasunaren babesle estatua eginik, erabateko morroizko moralitatea onartzera ailegatzen dira. Eta, noski, horien justifikazio morala zaila egiten da.

Geure moralitatea, demokratikoa eta sortzailea, une uneko beharrei erantzungo diena behar du izan. Geure moralitatea, bestalde, nazionalismo inperialista medio dela, atzentzen ari da. Bitarteko eta era asko ditu hori aurrera eramateko, eta horren adierazgarri ondorengo aipua egiteak merezi du. Espainia osoko botere sozialak ezarritako legedia moralki denok bete behar dugula, horrela behar duela izan, behin eta berriro gertaerak bihurtaraziz, sinestarazi nahi digute. Gogoan izan, hain zuzen, legea lege izateagatik ez duela zergatik moralarekin bat etorri behar, are gutxiago geurea ez bada eta ezarria bada. Horrelakoak behin eta berriro geure moralitatean eragiteko asmoarekin plazaratzen dizkigute. Horri aurre egiteko era bakarra, lehen esan bezala, moral demokratikoa indartzea eta sendotzea litzateke. Bide horrek, ez ahantzi, morala unibertsalari egin diezaiokegun ekarpen paregabeena berekin duela. Ekarpen hori, gizateriari eman diezaiokegun ondasun eskergarriena litzateke, hain zuzen.

Proposatutako gaia eztabaidagarria dela ezin uka. Baina euskal moralitatea sortu eta garatu behar dugula, hori bai, ukazina dela. Orain, euskal curriculumaz zelakoa izan behar eta nortzuek burutu behar duten argitzea dagokigu. Gaur egun, euskal moralitatea herria sendotzeko, biltzeko eta indartzeko oinarritzko euskarria da. Eskakizun horrek errazten duen askatasunerako bidea bada indartu eta bultzatu beharra dugu; aldiz, oztopatzea bada bere egitekoa, orduan bertan behera uztea hobe. Deituriko "Euskal Jaurlaritza, euskal erakunde eta euskal alderdi politikoak" egitasmoak, orain artekoak ikusita, bide hori ez ote den

hutsaren hurrengoa izango nabaria da. Beraz, iruzurrak albo batera utz eta herrikideon bete beharra dela baieztatu dezagun. Bide horri ekin, bada, diezagun.

Euskara bizi ahal izateko plazara eraman behar den bezala, euskal morala ere bizitzekotan plazan indartuko da, herrikideak eguneroko bizimoduan sortzen diren premiei erantzunez; eta ez noski, bulegoko zenbait buru argiren bitartez eta, are gutxiago, espainiar erakundeetatik bideratutako moralaren bidez. Esan bezala, herrian dagoen morala hartu, eta eguneroko jardura demokratikoaren bidez, bakarrik, egin daiteke aurre eta garatu ahulduta dugun euskal moralitatea.

Geure herriko herrikideak garez, has gaitzen bada euskal moralitateaz esatekoak plazaratzen. Atzeratuta badabilta ere, denon artean, demokrazian burutu behar genituzkeen zenbait baloreen adierazpenak egitea eta baloratzea oso premiazko zat jotzen baitugu. Has gaitzen, bada, zehazten geure premiei erantzun diezaiaketen baloreen zerrendatxo aditzera ematen.

Balioak, dakigun bezala, herri bateko harremanak antolatzekeo lagungarri diren orientabideak dira. Herrikideek dituzten premietatik eta beharretatik ikasten dena da balioa. Ondorioz, herrikideen arteko adostasuna bilatu eta bultzatu behar dugu. Alabaina, balioak herriak berak elkar bizitzeko sortutako orientabideak izan partez, beste nonbaitetik ezarri nahi zaigun obligazio moral bat izatera pasa izan dira. Horiek, gehienetan, balio batzuk ezarriz, balioei oinarri absolutu eta eztabaida ezina ematen diote. Balioak, nolana ere, arau moralen erreferente dira.

Gure artean, orain arteko balio handia lana izan da. Askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, elkarren arteko errespetua- gurasoekiko bereziki-, etxearen benerazioa eta horrelako baloreak ere garrantzia izan dute. Une honetan, gazteen artean betikoa izan bada ere, idealismoa da balore nagusia; adiskidetasuna, maitasuna, lagunartekotasuna eta zerbaiterako sakrifikatzea ere balore garrantzitsuak dira.

Balore horiek gure premiei, gure kulturari, izateko erari, askatasunari eta gure herria ibiltzen ari den guruz bidetari, Orixek zioen bezala, moldatu beharko ditugu. Beraz, meditatzen jarraitu beharko dugu ea orain aipatuko ditugun baloreak ez ote diren kontutan hartzekoak:

- Aberria eta herria maitatzea. Herriaren indarrak eta errekurtsuak adibidez.
- Askatasuna. Ea gero eta askeagoak garen sistema “demokratiko /totalitario” hauetan. Bere balioa eta ondorioak.
- Herri balore demokratikoak. Geun arteko berdintasuna, tolerantzia, pluraltasuna, adierazpen askatasuna, hau da, herrikidetasuna bermatzen eta garatzen ari ote garen.
- Harrotasuna. Euskal herritarra izatearen harrotasuna.

- Herri eta herrikideen interesen defentsa.
- Herrikideen elkartasuna.
- Arearekiko mesprezua eta aurre egiteko ausardia.

OHARRA

Historian zehar sustraizko gizarte aldakuntzak eman izan dira; esate baterako, bizimodu nomadatik sedentaria igarotzea eta horrelakoek... aldaketa antropologiko handiak ekarri izan dituzte. Eta horiek, halaber, ezinbesteko baloreen aldaketa. Bide beretsutik, aspaldidanik teknologiaren inguruan gauzatzen ari diren aldaketak eta garapenak,-teknotronikaz ezagutzen hasi dena-, gizakia, antropologikoki, zuzenki astintzen ari direla ezin uka. Ikusteke dago, oraindik, zertan bilakatuko den, baina aldakuntza baten aurrean gaudela begi bistakoa da.